

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nekazaritzako elikagaien sektoreari lotutako landa-dibertsifikaziorako 1,7 milioiko diru-laguntzetarako deialdia

Landaguneetan nekazaritzako jarduerekin zerikusirik ez duten enpresak sortzea eta nekazaritzakoak ez diren jarduerak sortu eta garatzeko inbertsioak gauzatzea izango dute xede.

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 17

Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako Sailak nekazaritzako elikagaien sektoreari lotutako landa-dibertsifikaziorako 1,7 milioiko diru-laguntzetarako deialdia egin du. Diru-laguntza horiek, Landa Garapeneko Planean (LGP) datozenak, Foru Gobernuak eta FEADER Landa Garapeneko Nekazaritzako Europako Funtsak (FEADER) batera finantzatutakoak dira, % 69an eta % 31n, hurrenez hurren. Horrela geratu da jasota Nafarroako Aldizkari Ofizialean, gaur, urtarrilaren 17an, argitaratu den Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren ebazpen banatan.

Hain zuzen, diru-laguntzak emango dira landaguneetan [nekazaritzako jarduerekin zerikusirik ez duten enpresak sortzeko](#) (745.514 euro) eta [nekazaritzakoak ez diren jarduerak sortu eta garatzeko inbertsioak](#) gauzatzeko (1.022.203 euro). Horien bidez, xede bikoitza lortu nahi da: batetik, lan-aukera berriak bultzatzea landaguneak hutsik gera daitezkeen ekiditeko, eta, bestetik, nekazaritza-sektorean lehiakortasuna sustatzea nekazaritzarekin zerikusirik ez duten jarduerak dibertsifikatzearen bidez.

Landaguneetan nekazaritzako jarduerekin zerikusirik ez duten enpresak sortzeko diru-laguntzen kasuan 37.275 euroko prima bakarra emango da, kopuru berdineko bi ordainketen bidez, nekazaritzari lotuta ez dagoen enpresa berri bat sortzeko. Diru-laguntza horiek pertsona fisikoei zuzenduta daude (nekazari profesionalak edo lehen mailako odol-ahaidetasuneko senideak). Eskaerak aurkezteko epea 1 hilabetekoa da.

Nekazaritzari lotuta ez dauden jarduerak sortu eta garatzeko inbertsioei dagokionez, diru-laguntza jaso dezakeen aurrekontuaren % 40ko inbertsioa ordainduko da, 200.000 euroko mugarekin. Pertsona fisikoei (nekazari profesionalak edo lehen mailako odol-ahaidetasuneko senideak) eta nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa txiki eta ertainei zuzenduta daude. Eskaerak aurkezteko epea 2 hilabetekoa da.